

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea



II MODULUA ESKOLA ETA CURRICULUMA


2019/20 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. KONPENTENTZIAK.....	4
2.1. Graduako kompetentziak.....	4
2.2. Lan modularreko kompetentziak.	4
3. TALDEAREN EGITURA.....	5
4. LANAREN TESTUINGURAKETA, ARAZO EGOERA ETA ATAZA.....	5
4.1. Testuinguraketa.....	5
4.2. Arazo egoera.....	5
4.3. Ataza.....	5
5. LAN GIDATUA.....	6
5.1. Eginbearra.....	6
5.2. Entregatu beharreko txostenak: Oinarrizko orientazioak.....	6
5.3. Txostenak idazteko formatua.....	7
6. LANAREN KRONOGRAMA.....	8
7. EBALUAZIOA.....	10
8. ERANSKINAK.....	11

1.- SARRERA

Eskola eta Curriculuma modulua lehenengo mailako bigarren lauhilekoan kokatzen da. Moduluan 5 irakasgaiak parte hartzen dute, eta bost irakasgaiak bere baitan biltzen dituen diziplinarteko lan bat egin behar dute ikasleek. Lan honek 1 edo 1,2 ECTS balio du, irakasgaiaren arabera, eta saio teorikoetan, praktikoetan zein eskolaz kanpo garatuko dute ikasleek.



*10 ordu bertaratzekoak eta 15 ordu ez bertaratzekoak

**12 ordu bertaratzekoak eta 18 ordu ez bertaratzekoak

Diziplinarteko lana saio praktikoetako orduetan burutuko da, baina saio teorikoetan, zeharka, lana burutzeko edukiak ere landuko dira.

Moduluko lan honetan askotarako adimenen teoriatik abiatuta, Lehen Hezkuntzako ikasleentzako ikaskuntza jarduerak diseinatuko dira. Horretarako curriculumeko proposamenez baliatuko dira.

MODULUKO IRAKASLEAK

Hezkuntzaren Psikologia: Blanca Olalde/Eider Oregui (31 Taldea) eta Lorea Azpiazu (32 Taldea)

Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I: Lidia Caño (31 Taldea) eta Oihana Barrutia* (32 Taldea) (*moduluko koordinatzailea)

Didaktika Orokorra: Justo Bereziartua (31 Taldea) eta Lorea Fernández (32 taldea)

Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I: Berta Echeberria (31 Taldea) eta Naiara Vicent (32 Taldea)

Matematika eta bere Didaktika I: Maite Arraiza (31 Taldea), Irakasle berria (32 taldea)

2.- KONPETENTZIAK

2.1 GRADUKO KONPETENTZIAK.

Graduko titulazioetan hainbat konpetentzia lantzen dira modulu-tako irakasgaien artean. Konpetentzia horiek irakasgai-tako edukien bitartez zein diziplinarteko lanen bitartez lantzen dira. Eskola eta Curriculuma modulu-an honakoak dira, laburbilduz, lantzen diren konpetentziak.

Taula 1. Graduko konpetentziak.

Graduko konpetentzia zenbakia	Konpetentzia
G001	Lehen Hezkuntzako curriculum-arloak, dagozkien diziplinen arteko harremana, ebaluaketarako irizpideak eta dagozkien irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozeduren inguruko ezagutza didaktikoen edukia ezagutzea.
G002	Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatzea, bai indibidualki eta bai zentzoko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean ere.
G009	Etorkizun iraunkor bat lortzeko garaian, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa balioestea.
G011	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan aplikatzea. Ikaskuntzari, heziketa herritarrari eta kultura-aberastasunari lagunduko dion ikus-entzunezko informazioa bereiziz hautatzea.
G012	Lehen Hezkuntzako ikastetxei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarriko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Kalitatea hobetzearen hezkuntza-zentzuetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.
G013	Euskara eta gaztelania eta, gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna frogatuz bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguru batean gauzatu ahal izateko, baina betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.

2.2. LAN MODULARREKO KONPETENTZIAK

Taula 2. Lan modularreko konpetentziak.

M01	Askotariko adimenen teoriari buruzko bibliografia aztertu eta informazio esanguratsua eskuratzea, nor bere ekarpena eginez eta, gero, denek artean osatuz. (G011)
M02	Curriculumaren garapenean oinarri psikopedagogikoei duten eragina analizatu ondoren, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat diziplinarteko ikaskuntza prozesuak diseinatzea sormenez. (G001, G002, G012)
M03	Lehen Hezkuntzako ikastaldeentzat jarduerak zehatz deskribatzea eta txosten idatzian aurkeztea, curriculumeko osagaiak oinarritzat hartuz. (G013)
M04	Lehen Hezkuntzako ikasleentzat prestatutako ikaskuntza jarduera konkretuekin proba egin eta ebaluatu elkarlanean eztabaida sortuz eta aldaketa nahiz hobetzeko iritziak ere argi adieraziz. (G002, G010)
M05	Informazioa laburtzea eta sormenez era grafikoan adieraztea, testuan azaldukoak bilduz eta tresna digitalen bidez txertatuz (G011).

3.- TALDEAREN EGITURA

Taldeak 4/5 pertsonakoak izan behar dute (ez dira onartuko 3 laguneko taldeak). Talderen batean arazoak sortuz gero, eta taldea konpontzeko gai ez bada, irakasle taldeak erabakiko du zer neurri hartu irtenbide bat bilatzeko. Ikasle talde bakoitzak bere taldeko fitxa (ikus 8.1 eranskina) bete eta moduluko koordinatzaileari entregatu beharko dio otsailaren 2rako.

4.- LANAREN TESTUINGURAKETA, ARAZO EGOERA ETA ATAZA

4.1 TESTUINGURAKETA

Historikoki, gizakiok adimen bakarra genuela pentsatu izan ohi da. Orain arte gizakion adimena bateratua zela eta pertsona bakoitzaren adimen maila zenbaki baten bidez (IK= Inteligentzia koizientea) neurtzea posiblea zela: test edo proba psikometrikoen bidez.

Howard Gardner-rek aldiz, adimenaren ikuspuntu murriz hau zalantzan jarri zuen 1983an eta 'Frames of mind' liburuan adimenaren definizio berri bat proposatu zuen non adimena arazoak konpontzeko edota kultura jakin batean edo kultura anitzetan baliagarriak izan daitezkeen produktuak sortzeko ahalmen biologiko eta psikologiko moduan ulertzen duen. Teoriaren arabera, gizakiok 8 adimen mota ditugu mundua ezagutzeko. Adimen bakoitza neurri batean ala bestean garatzen dugula kontuan harturik, pertsona bakoitzak bere adimen profila duela dio teoria honek, eta diziplina batzuetan besteetan baino trebeagoak izango garela.

4.2 ARAZO EGOERA

Demagun Oinarrizko Hezkuntzako tutoreak zaretela eta zuen Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP) adimen anitzen teoriarik oinarrituko dela. Horretarako, garrantzitsua da adimenaren nozioa eta teoria hau ezagutzeko, baita egin zaizkion kritikak kontutan izatea ere. Era berean, Curriculuma adimen anitzen ikuspuntutik aztertzea berebizikoa da, bai eta teoria honek ikastetxera zein aldaketa ekartzen dituen argitzea, hauek baitira ikuspegi psikopedagogiko hau praktikan jartzeko lehengo urratsak.

4.3 ATAZA

Gizarte arloko gai batean ardaztuta, adimen anitzen teoriak esaten duena oinarri hartuta eta curriculum proposamenaz baliatuz 3 jarduera diseinatuko dituzue. Jarduera hauetan adimen guztiak (8 adimenak) lantzen saiatu behar zarete, jarduera bakoitzean gutxienez horietako 3 landuz eta nahi duzuen bezala konbinatuz. Guztia kontzeptu mapa baten bidez adierazi beharko duzue.

5.- LAN GIDATUA

Arazo egoera horri erantzun nahian, diziplinarteko lan honen ardatza askotariko adimenak eta hauen lanketa izango da. Ikasle taldeek jardueren diseinuaren bitartez adimen horiek landu beharko dituzte. Horretarako, irakasgai desberdinetan askotariko adimenak zer diren, zergatik izan daitezkeen garrantzitsuak ikaskuntza prozesuan eta jarduerak diseinatzeko momentuan aintzat hartu beharreko elementu posibleak aztertuko dira.

5.1. EGINBEHARRA

Modulu honetan askotariko adimenak lantzeko jardueren diseinuan jartzen dugu arreta. Lehen Hezkuntzako ikasleentzako 3 jarduera diseinatu beharko dituzue. Jarduera horiekin ikasleen garapenean garrantzitsuak izango diren hainbat alor garatu beharko dira, alderdi edo arlo bakar bat lantzea saihestuz..

3 jarduera horiekin adimen guztiak landu beharko dira. Jarduera bakoitzean adimen bat baino gehiago jorratu ahal diren neurrian, adimen mota desberdinak lantzen ahalegindu beharko duzue. Zentzu honetan, oso garrantzitsua da adimenak modu integratuan lantzeko ahalegina egitea. Hori horrela, jarduera bakoitzean gutxienez 3 adimen lantzea eskatuko dizuegu. Beti ere, laguntza gisa, adimen bakoitzarentzat zer jarduera mota integratu ahal diren erraztuko dizuegu.

5.2. ENTREGATU BEHARREKO TXOSTENAK: OINARRIZKO ORIENTAZIOAK

Diziplinarteko lan honek hiru txosten/atal izango ditu. Txosten hauek lauhileko osoan zehar entregatu behar dituzue banan-banan, eta lanaren ebaluaketa jarraitua izango da. Horretarako, txosten bakoitzaren emate eguna zehazten duen kronograma diseinatu dugu (ikus gidaren 5. atala).

TALDEKO FITXAK: Fitxa batean (ikus 8.1 eranskina) taldearen eta taldekideen datu eta argazkiak bilduko dira. Horiek eskaneatu eta eGELA-ra igoko dira. Era berean, eGELAn excel dokumentu bat zintzilikatuko da talde bakoitzeko partaideen izen abizenak txertatzeko.

Entrega eguna: Urtarrilak 31.

Nori: 31 taldeak Lidia Cañori eta 32 taldeak Oihana Barrutiari.

Nola: “Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I” irakasgaiak eGELAn duen moduluko lanari buruzko atalean.

1. TXOSTENA: Lanaren justifikazioa jasoko duen txostena da. Atal honetan, hurrengo galdera hauei erantzuna eman beharko diozue:

*Nola ulertu da adimena?
Zertan datza askotariko adimenen teoria?
Zein dira adimen horiek?
Zer da bakoitza?*

Zein ahulezia eta sendotasun ditu teoria honek?

Zuen argudioak oinarri sendoak izan beharko ditu, hortaz, hainbat irakurketa eta dokumenturen azterketa burutu beharko duzue. Horien artean curriculum dekretua, testu liburuak, artikuluak eta bestelakoak bilatu eta aztertu beharko dituzue. Gainera, zeuen hausnarketa gisa, ikasgelako praktikan *askotariko adimenen* teoria honek duen eraginaz ere idatziko duzue, bai eta dituen ahuleziaz.

Honetaz gain, bukaerako atal batean, talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue hausnarketa, autoebaluazioa eta koebaluazioa eginez (8.7 eranskina): nola antolatu zareten, zailtasunik izan bada nola atera duzuen aurrera, etab.

Entrega eguna: Otsailak 28.

Nori: 31 taldeak Justo Bereziartua // 32 taldeak Lorea Fernández.

Nola: Entrega eskura egingo da.

Orrialde kopurua: 6 orrialde.

2. TXOSTENA: Ikaskuntza espazioan aurrera eramango diren **3 jarduerako sekuentzia** bilduko du. **Jarduera guztien artean lotura** bat egon behar du, Gizarte Zientzietako eduki bat hain zuen. Gainera, **jarduera bakoitzean gutxienez hiru adimen desberdin** jorratu beharko dira. Jarduera bakoitzaren deskripzio zehatza ere egingo da (ikus 8.3 eranskina). Aintzat ere hartu zuek aukeratzen duzuen Lehen Hezkuntzako etapari zuzenduko zaiola. Jarduerak egiteko materiala beharrezkoa bada, hori ere prestatu beharko duzue beste talde batekin elkartrukearen egunerako. Egun horretan beste talde batek zuek diseinaturiko jarduerak burutu beharko dituzue, kontutan hartu zenbat denbora izango duten hauek egiteko eta horren arabera egin itzazue zuen proposamenak.

Honetaz gain, bukaerako atal batean talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue hausnarketa, autoebaluazioa eta koebaluazioa eginez (8.7 eranskina): nola antolatu zareten, zailtasunik izan bada nola atera duzuen aurrera, etab.

Entrega eguna: Martxoak 27.

Nori: 31 taldeak Lidia Caño // 32 taldeak Oihana Barrutia.

Nola: Paperezko entrega bat egingo da eskura (bi aldetatik inprimatuta), eta pdf bat ere zintzilikatuko da eGELAn.

3. TXOSTENA: Lanarekin bukatzeko ebaluazio fase batetik pasatuko zarete. Zuen jarduera sekuentzia beste talde batekin elkartrukatuko duzue eta, ondoren, ebaluaketa orria beteko duzue (8.4 eranskina ikusi). Ebaluaketa orri hori taldeari helarazi beharko diozue eta zuek talde horren ebaluaketa jasoko duzue. Egiten dizueten ebaluaketa azken txostenean sartuko duzue.

Honetaz gain, bukaerako atal batean, talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue hausnarketa, autoebaluazioa eta koebaluazioa eginez (8.7 eranskina): nola antolatu zareten, zailtasunik izan bada nola atera duzuen aurrera, etab.

Elkartrukerako eguna: Apirilak 30.

Non: Didaktikako saioetan.

Orrialde kopurua: 2 orrialde.

Nori: Elkartrukea egiten den taldeari eta kopia bat irakasleari.

Nola: Entrega eskura egingo da. Jarduerak burutzeko materiala prestatuta ekarriko duzue.

4. TXOSTENA: Lanaren azken bertsioa izango litzateke. Aurreko txosten guztiak biltzen dituen eta modu txukunagoan ordenatzen dena. Honako atalak azaldu behar dira.

- Azala (taldekideen izenak, moduluaren izena, ikasturtea eta taldea)
- Aurkibidea
- Lanaren justifikazioa + kontzeptu mapa orokorra (1. Txostena) (8.2 eranskina)
- Jarduera sekuentzia definitiboa (2. Txostena) (8.3 eranskina)
- Taldeen arteko ebaluazio saioan egindako ebaluaketa orria (3. Txostena) (8.4 eranskina)
- Diziplinarteko lanaren ebaluaketa orria (8.5 eranskina)
- Bibliografia
- Autoebaluazioa/Koebaluazioa (8.7 eranskina)

Entrega eguna: Maiatzak 8.

Nori: 31 taldeak Lidia Caño // 32 taldeak Oihana Barrutia.

Nola: Entrega paperean egingo da eskura, eta Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I irakasgaiak eGELAn duen moduluko lanari buruzko atalean igoko da baita pdf formatuan.

Orrialde kopurua: Txosten guztien bilduma.

5.3.TXOSTENAK IDAZTEKO FORMATUA

Txosten guztiek formatu berdina izango dute:

- Azal simple bat taldearen izen abizenekin eta txostenaren zenbakiarekin
- Letra mota: Arial 12
- Lerroartea: 1,5
- Ertzak: 2,5 cm
- Orrialde guztiak zenbakituak

6.- LANAREN KRONOGRAMA

Lauhileko egutegi honetan diziplinarteko lana egiteko erabiliko diren asteak zehazten dira. Lana lauhileko osoan zehar egiteko aukera izango duzue, eta horretarako irakasgaietako saioak ere erabiliko dira. Hala ere, gogoratu beharreko datak honako hauek dira:

URTARRILA 2020

20	21	22	23	24
27	28	29	30	31
Urtarrilak 20: jaieguna Urtarrilak 21: bigarren lauhilekoaren hasiera. Urtarrilak 24: DILAN aurkezpen eguna 31 eta 32 taldetan Urtarrilak 31: taldeak osatzeko eta fitxa entregatzeko azken eguna.				

OTSAILA 2020

3	4	5	6	7
10	11	12	13	14
17	18	19	20	21
24	25	26	27	28
Otsailak 24 eta 25: ez dago eskolarik Otsailak 28: 1 txostenaren entrega				

MARTXOA 2020

2	3	4	5	6
9	10	11	12	13
16	17	18	19	20
22	24	25	26	27
30	31			
Martxoak 19-20: jaieguna/ez dago eskolarik Martxoak 27: 2 txostenaren entrega				

APIRILA 2020

		1	2	3
6	7	8	9	10
13	14	15	16	17
20	21	22	23	24
27	28	29	30	
Apirilak 8: egun honetarako bigarren txostenaren inguruko zuzenketa/gomendioak jasoko dituzue Apirilak 9-17: Aste Santuko oporrak Apirilak 28 Elkartruke eguna 31 taldea Apirilak 29: Elkartruke eguna 32 taldea				

MAIATZA 2020

				1
4	5	6	7	8
Maiatzak 1: Jaia Maiatzak 8: azken entrega				

7.- EBALUAZIOA

- Diziplinarteko lana egitea derrigorrezkoa da.
- Diziplinarteko lana gainditu ezean, azkeneko ebaluazioaren bitartez kalifikatuko da moduluari dagokion atala irakasgai guztietan
- Modulu lanaren nota ikasturte barruko deialdietarako bakarrik gordeko da.
- Klasera etortzen ez diren ikasleek ez dute diziplinarteko lana egiterik izango, baina azken proban diziplinarteko lanari buruzko galdera edo lan bat izango dute egiteko. Gogoratu diziplinarteko lana irakasgaiaren edukietan txertatzen dela, hortaz, irakasgai bakoitzak erabakiko du zer nola ebaluatuko duen.

Ebaluaketari dagokionez irakasgai bakoitzak lanari emango dion puntuazioa hurrengo taulan adierazten da (ikus Taula 3).

Taula 3. *Irakasgai bakoitzak lan modularrari esleitutako kredituak⁽¹⁾ eta balioa.*

	Kredituak	Puntuazioa
Didaktika Orokorra	1,2 Kreditu	2 puntu
Gizarte zientziak eta bere didaktika	1,2 Kreditu	2 puntu
Hezkuntzaren Psikologia	1,2 Kreditu	2 puntu
Matematika eta bere didaktika	1 Kreditu	1,6 puntu
Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I	1 Kreditu	1,6 puntu

⁽¹⁾ Kreditu ECTS bakoitzeko 10 ordu aurrez aurrekoak eta 15 ez aurrez aurrekoak dira.

Irakasle bakoitzak ebaluazio jarraitua egingo du eta, azkenean, denen artean emango da kalifikazioa.

MODULUKO KONPETENTZIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
M01	1.1. Askotariko adimenen teoriari buruz informazio iturri fidagarriak erabili ditu. 1.2. Informazio erabilgarria denen arteko eztabaidan hautatu da.
M02	2.1. Jarduera bakoitza adimen mota eta ezagutza arlo bat baino gehiagorekin lotzen du. 2.2. Jarduerak bere osotasunean aurkezten ditu (jardueraren definizioa, beharrezko materiala, adimenekin lotura). 2.3. Jarduerak erakargarriak eta orijinalak dira. 2.4. Prestatutako ikaskuntza jarduerak Lehen Hezkuntzako etapari egokitzen zaizkio.
M03	3.1. Ikaskuntza jardueren ezaugarriak identifikatzen ditu.

	<p>3.2. Jarduerei lekua aurkitzen die curriculumean.</p> <p>3.3. Jardueren adierazpena Lehen Hezkuntzako umeen hizkuntzara ekartzen dute.</p>
M04	<p>4.1. Jarduerak balioesteko irizpideak baditu.</p> <p>4.2. Ikaskideen lanari buruzko iritzia argudiatzen du.</p> <p>4.3. Ikaskideen lanak aztertuta, hobekuntza egingarriak proposatzen ditu.</p>
M05	<p>5.1. Kontzeptu mapak eratzeko teknika ondo erabiltzen du.</p> <p>5.2. Eskainitako informazioa zuzena da.</p> <p>5.3. Informazio grafikoa ondo integraturik agertzen da testuan.</p>

8.- ERANSKINAK

8.1: TALDEKO FITXA

LEHEN HEZKUNTZA 2018/19

II. Diziplinarteko lana

LH-1/3_
GA____

Taldearen izena:

PARTAIDEAK

IZENA:
ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

IZENA:
ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

IZENA:
ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

IZENA:
ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

IZENA:
ABIZENAK:
E-MAILA:
OHARRAK:

8.2. LEHEN TXOSTENAREN EGITURA ETA EDUKIA: ALDERDI TEORIKOAREN LANKETA (JUSTIFIKAZIOA ETA HASUNARKETA)

Txostenak izango dituen atalak honakoak izango dira:

- 1.- Askotariko adimenen teoriaren azalpena (2 orri):
 - Adimenaren ikusmoldeak: analisi faktorialaren ikusmoldea eta ikusmolde berriak.
 - Adimen anitzak: adimen bakoitzaren definizioa. Ikasleen profilak.
 - Adimen anitzen teoriari egiten zaizkion kritikak.
- 2.- Adierazi, curriculum diseinuaren egitura orokorrari begiratzuz eta adibide konkretu batzuk emanez, non eta nola identifikatzen diren hezkuntza dekretuan askotariko adimenak. (2 orri)
- 3.- Curriculumaren garapenera etorruta, askotariko adimenen teoria gelan aplikatzeak zer suposatuko lukeen edo zehaztapen metodologikoak zeintzuk lirakeen aztertu (espazioa, irakasleen rola, jarduera motak eta antolaketa, ebaluazioa, ...) (2 orri)
- 4.- Erreferentzia bibliografikoak
- 5.- Diziplinarteko lanak biltzen dituen kontzeptu guztien arteko kontzeptu mapa jpg formatuan. "Ciencias Sociales y su didáctica I" irakaslegoaren oniritzia jaso ondoren, **maiatzaren 8ko** azken txostenean **gehituko da**.

Lanaren atal honetan, bibliografiatik jasotakoaz gain, ikasleok zuon ezagutzatik egindako hausnarketa berriaz balioetsiko da.

Honetaz gain, bukaerako atal batean, talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue hausnarketa eta autoebaluazioa eginez: nola antolatu zareten, zailtasunik izan bada nola egin duzuen aurrera, etab. Horretarako 8.6 eranskinean agertzen diren ebaluazio irizpideak erabil ditzakezue.

BILAKETA BIBLIOGRAFIKOA: Hona hemen erreferentziak egoki izendatzeko adibideak.

Liburua:

Ardozzine, P., eta Rivoltella, P. C. (2004). *Didáctica para e-learning*. Malaga, Espainia: Ediciones Aljibe.

Liburu kapitulua:

Kherroubi, M. (2007). Pourquoi travailler en équipe à l'école primaire?. In A. Lopes (Ant.), *De uma escolar a outra: temas para pensar a formação de professores* (35-42). Oporto, Portugal: Edições Afrontamento.

Aldizkari artikulua:

Domingo, L., Sánchez, J. A., eta Sancho, J. M^a. (2011). Desde la voz del alumnado. *Cuadernos de Pedagogía*, 418, 48-51.

On line dokumentua:

Tedesco, J. C., eta Tenti Fanfani, E. (2002). Nuevos tiempos y nuevos docentes. *Instituto Internacional de Planificación en Educación*. Eskuratua: <http://www.iipe-buenosaires.org.ar>

Legea:

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016/1/15).

Entrega eguna: Otsailak 28.

Nori: 31 taldeak Justo Bereziartua // 32 taldeak Lorea Fernández.

Nola: Entrega eskura egingo da.

Orrialde kopurua: 6 orrialde erreferentziak barne. Azala ez da kontatuko orrialdeen barruan.

8.3. BIGARREN TXOSTENAREN EGITURA ETA EDUKIA

Ikaskuntza espazioan aurrera eramango diren 5 jarduerako sekuentzia bilduko du. Jarduera guztien artean lotura bat egon behar du, zuen interesgune batetik abiatuta modu globalizatuan aplikatu daitezkeen hezkuntza prozesuan. Jarduera bakoitzaren deskripzio zehatza ere egingo da. Aintzat ere hartu zuek aukeratzen duzuen Lehen Hezkuntzako etapari zuzenduko zaiola. Jarduerak egiteko materiala beharrezkoa bada, hori ere prestatu beharko duzue beste talde batekin elkartrukearen egunerako. Egun honetan beste talde batek zuek diseinaturiko jarduerak burutu beharko dituzue, kontutan hartu zenbat denbora izango duten hauek egiteko eta, horren arabera, egin itzazue zuen proposamenak.

Txostenak izango dituen atalak eta xehetasunak honakoak izango dira. Jarduera bakoitzeko honako txosten bat idatzi beharko da.

- | |
|--|
| <ol style="list-style-type: none">1.- Jardueraren izenburua2.- Lantzen diren adimenekin duen lotura3.- Jardueraren deskribapena4.- Beharrezko materiala |
|--|

Honetaz gain, bukaerako atal batean, talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue hausnarketa eta autoebaluazioa eginez. Adibidez, aurreko txostenean talde mailan zailtasunik eduki duzuela aipatu baduzue, ea hura gainditu duzuen eta nola lortu duzuen hori. Oinarri bezala 8.6 ebaluazio errubrikako irizpideak erabil ditzakezue.

Entrega eguna: Martxoak 27.

Nori: 31 taldeak Lidia Caño // 32 taldeak Oihana Barrutia.

Nola: Entrega eskura egingo da paperean, eta eGELAn ere pdf bat zintzilikatuko da.

8.4. TALDEEN ARTEKO EBALUAZIO SAIORAKO ORRIA

Lanarekin bukatzeko ebaluazio fase batetik pasatuko zarete. Zuen jarduera sekuentzia beste talde batekin elkartrukatu eta, ondoren, ebaluazio orria beteko duzue (8.4 eranskina ikusi). Ebaluaketa orri hori taldeari helarazi beharko diozue, eta zuek talde horren ebaluaketa jasoko duzue. Egiten dizueten ebaluaketa azken txostenean sartuko duzue.

Ebaluaketaren elkartrukaketa egunerako zuen promosamenerako behar diren material guztiek prest egon behar dute, eta gelara eraman behar dituzue. Gogoratu beste taldearen ebaluaketa egiteko bi ordu dituzuela eta ondoren taldeari (eskuan edo korreoz) eta irakasleari egunean zehar entregatu behar zaiela. Egindako ebaluaketaren kopia bat ere zuentzat gorde behar duzue.

Ebaluaketa burutzeko pausuak honakoak dira:

1. Pausua: ebaluaketa orria arretaz irakurri.
2. Pausua: Jarduerak eabazteko erabiliko duzuen denbora mugatu. Gehienez ordubete eskaintzea gomendatzen da, garrantzitsuena ebaluaketa orria betetzea baita.
3. Ebaluaketa orria fundamentuz bete, **ARRAZOITU** zuen erantzunak beste taldearentzat zuen ekarpenak baliagarriak izan behar baitira, eta horiek gero ahoz adierazi beharko dituzuelako taldearen aurrean.

Ebaluatu beharreko atalak:

- PROZESUA: Jardueren garapenean zer gertatu da?
- JARDUERAK: Irakasle bezala jarduera hauek nola baloratzen ditugu? Koherentzia, motibagarritasuna, orijinaltasuna, zaitasun maila, adimenen lanketan, esperimenezko materiala, etab.
- ONDORIOAK: Zer ekarpen egin digu talde honen lana aztertzeak?, zein hobekuntza planteatzen dizkiogu taldeari?

Honetaz gain, bukaerako atal batean, talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue hausnarketa eta autoebaluazioa eginez. Nola antolatu zareten, zailtasunak eman badira nola atera dituzue aurrera, etab. Oinarri bezala 8.6 ebaluazio errubrikako irizpideak erabil ditzakezue. Atal hau irakasleari entregatzen zaion txostenean joango da, ez taldeari ematen zaion horretan.

Elkartrukerako eguna: Apirilaren 28/29an. Oso garrantzitsua da jarduerak burutzeko materiala prestatuta ekartzea.

Non: Zehazteke.

Orrialde kopurua: 2-3 orrialde.

Nori: Elkartruketa egiten den taldeari eta kopia bat irakasleari.

Nola: Entrega eskura egingo da.

8.5. MODULUAREN EBALUAKETA ORRIA IKASLEENTZAT

Talde bakoitzak diziplinarteko lanaren azken txostena aurkeztean ebaluaketa orri hau ere txertatu beharko du.

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (Diziplinarteko lanaren gidaren hasieran daude konpetentzia hauek)
- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?

8.6. LANTALDEA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

IRIZPIDEAK	1	2	3	4
EKARPENAK eta PARTAIDETZA	Ez ditu inoiz ideiak ematen lana egiteko, ezta iradokizunik egiten ere hobetzeko. Batzuetan besteek, lanaren helburuak lortzeko, egiten dituzten proposamenak oztopatzen ditu.	Batzuetan lana burutzeko ideiak eskaintzen ditu, baina inoiz ez iradokizunik lana hobetzeko. Taldearen helburuak lortzeko besteen proposamenak onartzen ditu.	Lana egiteko ideiak ematen ditu baina gutxitan egiten ditu iradokizunak hobetzeko. Ahaleginak egiten ditu taldearen helburuak lortzeko.	Beti eskaintzen ditu ideiak lana egiteko eta askotan proposatzen ditu iradokizunak lana hobetzeko. Ahaleginak egiten ditu taldearen helburuak lortzeko.
JARRERAK	Oso gutxitan entzuten eta partekatzen ditu lankideen ideiak. Ez dago kezkatuik talde kohesioarekin. Ez du arreta jarri lankideen gogoaldatean.	Batzuetan lankideen ideiak entzuten ditu eta onartzen ditu. Talde kohesioaren alde egiten du, tarteka. Noizbehinka lankideen gogoaldatea kontuan hartu du.	Entzun eta partekatzen ditu lankideen ideiak baina ez du eskaintzen modu bat osatzeko. Maiz agertzen da talde kohesioaren alde. Adi egon da beti lankideen gogoaldatearekin.	Beti entzuten eta partekatzen ditu lankideen ideiak eta saiatzen da erabiltzen lana osatzeko. Berariazko uneak sortzen ditu aldiro taldearen kohesioari eusteko. Lankideen gogoaldatea baliostean du taldean
ERANTZUNKIZUNA	Ez du inoiz bere lana epean ematen eta talde osoak aldatu behar ditu bere datak edo epeak.	Askotan atzerapenak ditu lanak emateko eta horren ondorioz taldeak ere, noizbehinka, aldatu behar du bere planifikazioa.	Batzuetan atzeratuta ematen ditu bere lanak baina taldeak ez du bere planifikazioa aldatu behar izaten.	Beti garaiz ematen ditu bere lanak eta ez du taldearen planifikazioan eraginik sortzen.
AGERTZE eta PUNTUALTASUNA	Gehienez % 60 agertu da bileretan eta ia guztietan berandu edo lehenago alde egin du.	%61-%74 agertu da bileretan eta ez da beti garaiz ailegatu.	% 75-%90 agertu da bileretan eta beti garaiz ailegatu da.	Bilera guztietara etorri da eta beti garaiz ailegatu da.
GATAZKEN KONPONKETA	Desadostasun edo gatazka egoeretan ez ditu besteen iritziak edota iradokizunak onartzen. Ez du beste aukerarik eskaintzen eta asko kostatzen zaio irtenbide adostua onartzea	Desadostasun edo gatazka egoeretan gutxitan entzuten edo onartzen ditu besteen iritziak edota iradokizunak. Ez du beste aukerarik eskaintzen baino onartzen du erabaki adostua.	Desadostasun edo gatazka egoeretan ia beti entzuten ditu besteen iritziak eta beren iradokizunak onartzen ditu. Batzuetan aukerak eskaintzen ditu ideiak adosteko.	Desadostasun edo gatazka egoeretan beti entzuten ditu besteen iritziak eta onartzen ditu iradokizunak. Beti eskaintzen ditu aukerak irtenbide adostuaren bila.

Iturria: Encarnacion Chica Merino "Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica" en *Escuela Abierta*, 2011, 14, 67-81. Egokitua.

8.7 TALDEKIDE BAKOITZAREN EBALUAZIO ORRIA (EGELARA IGOTZEKO)

IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	AUT OEB Izena	Lank . 1 Izen a	Lan k. 2 Ize na	Lan k. 3 Ize na	Lank . 4 Izena
EKARPENAK eta PARTAIDET ZA	<ul style="list-style-type: none"> - Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da. - Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak. - Besteei eskatzen dizkie ideiak eta iritziak eta saiatzen da hauek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. Ezagutza sakontzeko besteei ideien argudioak eskatzen dizkie. - Ulertzen ez duenean galdetzen die lankideei, eta azalpena berak baldin badaki lankideei eskaintzen die. 					
JARRERAK	<ul style="list-style-type: none"> - Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du, - Besteen partaidetza bultzatzen du. - Lankideei laguntza ematen die eta beren merituak aitortzen ditu. - Ideiak kritikatzten ditu, ez pertsonak. - Talde kohesioa mantentzen saiatzen da eta lankideen gogo-aldarteak kontuan hartzen saiatzen da. - Zailtasun aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak. 					
ERANTZUKI ZUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Adostutako arauak betetzen ditu. - Bere lanak adostutako epeetan ematen ditu. - Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazio. - Lana eman baino lehen orraztu egiten du. - Hartutako konpromisoak betetzen ditu. 					
AGERTZE eta PUNTUALTA SUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera guztietara agertzen da. - Bileretara garaiz agertzen da eta bukaera arte ez du alde egiten. - Kaleren bat egiten badu edo berandu ailegatzen bada ongi justifikatzen du. 					
GATAZKEN KONPON KETA	<ul style="list-style-type: none"> - Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen. - Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak. - Saiatzen da beste aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen. - Tentsioak bideratzen saiatzen da. - Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du. 					

Egokitua. Iturriak: 8.6 errubrikaren bera